

## HIRU SAGU ETA ALTXORRA

Berastegiko baserri batean hiru sagu bizi ziren, Tente, Zili eta Mai.

Altxor gozo bat zuten gordeta beraien leku sekretuan, amona Tririk egindako azken ardi-gazta.

Tentek goizetan lorategiko larrosak ureztatzen zituen, Zilik gosaria prestatzen zuen eta Maik etxea garbitzen zuen. Horrela pasatzen zituzten egun guztiak, lan eta lan, egun amaierako sariaren zai, gazta zati txiki--txiki bat.

Egun batean ordea, ezustekoa bat gertatu zen , amonaren gazta zatia desagertu zen eta Mai ere ez zegoen etxean.

Ez zuten Mai gehiago ikusi ezta gazta zatirik ere. Baina hurrengo egunean, etxea garbitzen ari zirela lurrean gazta apurrak agertu ziren eta ondoan paper zati bat ohartxo batekin.